



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2007-12-08**

V.URTEA 1.308.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IÑAKI ZUBIZARRETA IDAZLEA

«Manuel Lasarterena sufrimendutik sorturiko obra sakona da»

LEITZA Manuel Lasarte bertsolariaren bizitzari buruzko liburuxka argitaratu du Zubizarretak 'Bidegileak' bilduman

BERTSOLARIA «Osoa da, bertsolari huts-hutsa, eta estilo idatziak ez du berarengan eraginik» dio idazleak 4-5



Manuel Lasarte erdian, eta Iñaki Zubizarreta eskuinean. HITZA



Kultur Etxean dagoen erakusketaren bi adibide. EEZBIZA

Afrikako artelanak daude ikusgai eta salgai Kultur Etxean

KULTURA Afrikako misiolarien elkarteak antolatuta, gaur goizean irekiko ditu atea 3

L Laburrak**Hitzaldia Orixen gurasoei zuzendua, etzi, 18:30ean**

HEZKUNTZA • Datorren astelehenean, abenduaren 10ean, 18:30ean hitzaldi bat eskainiko dute Orixen institutuak *Komunikazioa seme-alabekin* izenburupean. Euskaraz izango da hitzaldia, eta DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendua egongo da. Jose Francisco Amiana psikopedagogoak emango du hitzaldia.

Pelikula eskaintza handia asteburuan leidorren

ZINEMA • *Irabazle eta galtzaile* 10 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzendutako filma izango da gaur ikusgai 17:00etan; bihar, berriz, 3 eta 6 urte bitarteko gaztekoentzat *Urtemuga festa* filma emango dute Leidor aretoan, 17:00etan. Helduentzako, berriz, gaur *13 Rosas* izango da ikusgai 19:30ean eta 22:30ean. Bihar, *Tierra* filma eskainiko dute, 19:30ean eta 21:30ean. Bestalde, etzi, ikuslearen egunean, *13 Rosas* pelikula izango da ikusgai 20:30ean. Badago beraz non aukeratu asteburu honetan Tolosako zineman.

Ken Zazpi taldearen kontzerturako sarrerak

MUSIKA • Ken Zazpi musika taldeak hilaren 14ean Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko. Leidorreko leihatilan, zine saioen ordutegietan edota Kutxa bidezko salmantan (Servikutxa, telekutxa eta www.kutxa.net) eskuratu ahalago dira 12 euroren truke.

Kantina bezala aurkezteko epea

KULTURA • Haur danborradarako kantineraren argazkiak aurkezteko epea hilaren 9an amaituko da. Bi argazkiak, atzean izen-abizena idatzita, Veleta - Aiz Orratz elkarrean aurkeztu beharko dira.

S Soka motzean**«Txukuna baina Tolosari berezko xarma kendu diote»****XABIER AZKUE**

Langilea

A. IMAZ

Soka motzean, Tolosa gaitzat hartuta, bertsolari dohain erantzun ditu Xabier Azkuek (Tolosa, 1978) galderak.

Zer iruditzen zaizu gaur egungo Tolosa?

Txukuna. Txukunegia. Tolosari berezko xarma kendu diote.

Nork kendu dio ustezko xarma hori?

Muxu baten edo bozka baten truke saldu gaituzten haiek.

Ez al ziren ba muxu bat eta 30 txanpon?

Orain esku emate bat eta 30 milioi izango lirateke.

Judasetaz hitz egiten ariko zara, ezta?

Bai, Plaza Berria oso polita dago.

Inauterietako egun bat?

Osteguna. Gerrateko lehen asaltua delako eta tentsioak orduan askatzen ditugulako.

Ikusi nahi ez duzun moztorro bat?

Txilaba. Ez delako ez errealtate ez inauteri. Sasi moztorroa da.



ASIER IMAZ

**Frontenis Txapelketako finalak**

BERROBI • Berrobiko XVI. Frontenis Txapelketaren finalak jokatu zituzten atzo arratsaldean. Binaka gizonetakoan, Mikel Goitia eta Jorge Beloki amezketarrak, Xabier Romero tolosarraren eta Oscar Gomez donostiarraren aurka aritu ziren. Binaka emakuzko-

tan, Naiara Onsalo eta Lierni Garcariena berastegiarrik, Mireia Lezea eta Arantzazu Rodasen aurka aritu ziren. Gizonetakoan banaka, Mikel Goitia eta Xabier Romero aritu ziren nor baino nor. Jende ugari bildu zen finalak ikusteko. I. GARCIA

@ Eztabaida. Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia proposatzen dizkizugun gaien inguruan: «Egun hauetan Txuleta-ren Festa ospatzen ari dira Tolosan. Helburu nagusia Tolosa gastronomian erreferente izatea da.

Zein da zure iritzia?»; «Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna igaro da: egunero genero indarkeriarekin loturiko eraso berri irakur dezakegu. Non dago arazoa?

www.tolosaldekohitza.info

Atzoko azokan nabaritu ziren egunaren eta lekuaren aldaketa

Azoka • Triangulo plazan jarri zituzten postuak, eta eguraldi txarra zela eta, ohikoa baino jende gutxiago izan zen

PABLO ALBERDI

Garai hauetan ohikoa den bezala eguraldiak ez zuen lagundu atzoko azoka egunean, baina horretaz gain, beste faktore batzuk ere izan ziren azokari bere indarra kendu ziotenak; izan ere, larunbatetik ostiralera pasa zuten gaur jai eguna delako, eta bestetik, Triangulon jarri zituzten postuak.

Aipatzekoa da, postuetan ohiko kalitatea izan zela nagusi, barazki, leka eta fruta onenekin. Hala, porruak euro bat eta 5 euroren artean zeuden tamainaren arabera; azenarioak 2 eta 4 euroren artean, eta eskarolak, bruselazak, azak, azalorreak, brokoliak, espinakak... eskaintza aukera paregabea izan zen. Berdin esan daiteke, babarrun, indaba eta babekin, hauen aukera ere ugaria izan baitzen, eta baita frutena ere. Bestalde, Atadi kalean hasiak dira landareekin, beraz, denboraldia hasi da, baina aste batzuk itxaron beharko ditugu oraindik eskaintza ugaria izateko.

Berdura plazan ere eragina

Triangulo plazan kokaturikoak bezala, Berdura plazakoak ere nabaritu zituen atzoko azokaren aldaketan. Aipagarriena hemen, marrubi plantulak azaldu direla dagoeneko.

» ATZOKO AZOKA

	Merki.	Gares.
Berdura plaza		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,20
Xarbota	4,00	6,00
Erroneroa	4,00	6,00
Txinatar krabelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak

Pikua	2,00	-
Gamuza	14,00	-
Errezil sagarra	1,50	8,00
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	3,00	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Urrak	2,00	3,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00
Arroza	1,90	2,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Ogia	2,55	-
Azukrea	3,35	-

Ken Zazpi

ABENDUAK

TOLOSA 14 OSTIRALA 22:00

Senda Bide

BIOLOGIKOA

- Elikadura • Zeliakoak
- Kirolarentzako nutrizioan adituak
- Benetako "Original Bibi" produktua

Korreko kalea, 3 • 943 674 140
San Frantzisko, 19 • 943 655 444
TOLOSA



Afrikar herrialde ezberdinetako artelanak topatu daitezke Kultur Etxean ikusgai jarri duten merkatuan: eskulturak, bitxiak, oihalak, maskarak... ESTI EZEIZA



Afrikar artelanak salgai eta ikusgai

Kultura » Aita zuriek antolatuta Kultur Etxean erosi daitezke hilaren 16a bitartean, afrikar artisauek egindako eskultura eta artelanak

ESTI EZEIZA

Aita zuriek antolatuta ikusgai, eta aldi berean, salgai dira arte eta artegintza afrikarreko elementuak. Merkatuak gaur goizean irekiko ditu ateak eta hilaren 16ra arte egongo da zabalik.

Afrikan misiolarien elkarteak, Aita Zuriek bezala ezagutua, 1868an sortu zen apostologintza Afrikan garatzeko helburuarekin. Honek 22 herrialde ingurutan du ordezkaritza. Apostolutza lanaz gain, beste hainbat egitasmo ere eramaten dituzte misionariak. Horien artean, hezkuntza, osasun eta enplegu arloan. Horrenbeste urte herrialde horretan eramanda, ongi ezagutzen dute dagoeneko beraien kultura eta artea.

Antolatzaileek azaldu bezala,

merkatu honen helburuak bi dira. Alde batetik, salneurri egokian produktuak saltzea, artisauei lagunduz. Eta bestetik, hemendik lortutako diruarekin, Aita zuriek, gizarte ekintzetarako erabiliko dute diru hori.

Artisan lanak

Herrialde eta etnia ezberdinetako afrikarrek egindako produktuak aurkitu daitezke Kultur Etxeako erakusketan. Besteak beste, maskarak aurki daitezke. Hauek afrikar kulturaren elementu iradokitzailenak dira. Afrikar tradizioan, uste zen, aurpegia estalia zeraman gizona, agertzen zuen izpirituarekin identifikatzen zela.

Afrikan kulturalan, kareta, bizi-tza mementu garrantzitsuetan

agertzen dira: emankortasun erri-fuetan, heldutzean eta hiletetan besteak beste. Askotan uste izan den bezala, maskara ez da sorgin-keriarako instrumentua, hau baleteko edo opera mitikoko osagaia da. Fenomeno hau mundu kristautan irudi sakratuaren misterioarekin alderatzen da, batez ere, ikonoarekin.

Makondeko artea

Makonde 400-500 metroko alturan kokatutako dagoen lautada bat da, eta 5.000 metro² ditu. Hau, 12-15 kilometro bitarteko haran batek zaitzen du, non Ruvuma ibaia igaritzen den. Ibaia hau Malawin jaiotzen da eta Mozambike eta Tanzaniako muga osatzen du.

Makonde deitzen zaie era lautada honetan bizi direnei. Milioi bat pertsona inguru bizi dira inguru honetan, eta Tanzania eta Mozambike artean banatuta daude. Makondeen artean, ordezkaritza amarengandik dator. Hau kontu-

tan hartu behar da emakumeak familian duen garrantzia aztertzeke garaian. Bestalde, oso ezaguna da Afrikan, Makondeen artea. Izan ere, 1900 urtea baino lehen egindako obrak Alemania, Ingalaterra, Portugal eta Suitzako hainbat museotan aurki daitezke.

Artelanak egiteko garaian Makondeek egurrik gustukoena ebanoa da. Material hau, bere gogortasunagatik, oso zaila da lantzeko. Ebanoa, bihotz ezberdineko zuhaitza dela esaten da, azala zuria eta barrua, beltza baititu. Esaten da, misterio kutsua duela.

Makondeek beraien artelanak egiteko erabiltzen duten materialak bat brontzea da. Hau moldeztatu egiten duten, nahi duten forma emanaz. Hala, emakume oso estilatuak ikusi daitezke, beraien eguneroko lanak egiten. Izan ere, Makondeek beraien artelanetan, orohar, eguneroko bizitzako irudiak islatzen dituzte: dantzak, betebeharrak, familia ereduak...

Hala ere, azken urteetako sorkuntzetan nabaria da kristautasunaren eragina, gurutzaren irudiak ageri baitira obretako batzuetan.

Makondeek beraien artelanekin adierazi nahi dutena da, «herri honek asko dakiela gizakiaren bizitzaz: nondik datorren, zer egin beharra daukan, nora joan...»

Eskulturen bitartez azaltzen dute hau guztia. Non gizon eta emakumeek, oreka bat lortuz, piramide bat osatzen dute. Bestalde, eguneroko bizitzak eragin handia du artean, eta askotan hau da jorrazten dute gaia Makondeko artistek: bere pisua eusten duen adinekoa, egur bila doan emakumea, amatasuna... Dena den, makondeko eskulturak, errealitateki hasi eta abstrakzioaraino doaz. Bizitzaren eta unibertsoaren misterio ezberdinak adierazten dituzten objektuak dira. Hauetan denetan, arbaso, jeinu, izpiritu, naturako indar eta bizidunen mundua inplikaturatuta ageri delarik.

E Elkarrizketa

Bertsolaritza «Iñaki Zubizarretak Manuel Lasarteri buruzko liburuxka argitaratu zuten, 'Bidegileak' bilduman eta bertan bere bizitza eta somena aztertzen ditu.

NAHARA GARZIA

Lau bertsolari eta lau idazleri buruzko liburuxkak eman zituzten argitaratzen *Bidegileak* bilduman urriaren amaieran. Horien artean, Iñaki Zubizarretak Manuel Lasarteri buruzkoa argitaratu zuten. Gainera, Zubizarreta, Iñaki Hernandez eta Julian Belokiak jaiotzez Leitzakoa den bertsolaritza erakusketan antolatzaileak dira. Zubizarretak liburuxka horretan bertsolari handien bizitza eta somena aztertzen ditu.



Manuel Lasarteri eskerrena eta Iñaki Zubizarretak eskulanean, bakari botolan.

«Sufrimendutik sorturiko obra sakona da Manuel Lasarterena»

beretzotasuna, apaltsuna, maitasuna, arrantzaleak, nekazariek, langileak, kirolariak, pobreak, artoak... Eta amorea han eta hemen amare fin, ez zabala. Ez da erraza gai guztiotatik bi edo hiru bereizten, dena kantatu baitu opo-voietzerki.

Liburuduan Lasarteri adidea ere aipatzen duzu.
Kontu-kontu gogoaz daurrez auzer, eta etxean poliki-poliki idazten; inurriari ura bezalaxe darto hitza ere, bertsorean antzera. Osan urriak eta nekeak etxeratu

zuen Manuel, 42 urtean (1944-1986) plazarik plaza kantatu ondoren. Onduan erabaki zuen zertxobait idazten hasia, lagun batzuek baliztatik. Ez zuen eskolarik—laila hilabete ere ez dute osatzen haren eskola egun guztirik—, eta halere animatu egin zen. Dena batera idazten du, hitzak bereizi gabe, puntuaziorik gabe. Hitz lauz bere kontuari senik eraman da, eta bertsolaritza den beharrik inurri.

Zuri bereziki gustatzen zaizun bertsoen bat?
Hainbeste bertso ere sortu ditu Manuelek, hainbeste bertso sorta zongarriegin, oso zail da bizipahitu bereizten. Hala ere aipatuko ditut seiak, batak, inurri bertso amologirik eginen bada, lekuri oner

nean ezartzeko moduloak: *Gau eder bat, Egurjentzia, Nere alaba zana, Lore eder bati, Nere bizitza estia, Txantxogorri bati, A maretia soaska, Nere biki-kantoiari buruztuenan, Nere soakari, Neskarzar bati, Leitzakoko omenaldia...*

Zergatik erabaki zenuen Manuel Lasarteri buruzko erakusketak bat egitea?
Arantzazun zahalku zen lehen aldiz erakusketak hori oraintan bi urte, Gero Tolosan, Orton, Leitzan, Zegaman, Zarautzen eta Iruñean. Dimestean eta beste leku askotan ez da oraindik iritsi, baina udalteeak eta animatzen badira, ez dago oztoporik eramateko. Manuelek bizitza eta ekarpena irakustea hiru lagunon asmoa izan zen: Iñaki Hernandezek, Julian Beloki eta hiruuma Oñain hitz egitea har nartu ere eskas hasi gizen Manuelek inurriaren Oñain hitz egitea beharrik, behin urteko. Eta oraintsu lau urte, Oñain hitz egitea, bertsosak genioen elkari—Guragintak, Manuelek solasaldiak gozatzen, haren iaera ezagutzen, haren fruituak hartzen, eta guk ere orbatik eman behar geniokek, ha, eta aldi berean jendeari zaharku geuregintatuta». Horrelaxe sortu zen erakusketarena.

42 urte ez plazaz plaza ibiltzeaz gain hainbat liburu ere idatzi ditu.
Harrigarria da Manuelek emutze zortzi liburu eder: Auspoa bilduma. Hiru disko-zintata eta beste bat bereiz, 12 etxeak argitaratuak, eta

hizitza Xuxok. Milaka eta mila bertsu. Eta are harrigarriago da emaitza hori Manuelek bizitza kontuan harturik: eskolarik eza, lan nekagaririk eta osasun urria. Bafimendutik sorturiko obra sakona da Manuel Lasarterena, eta berezko jakinduria da arimaren zolan bitzesan jasan dena gipuztaz zahukoa.

«Bere iturririk darien ura ematen digu Manuelek, ez du besteririk nahastenu»

«Bertsolari osoa da, bertsolari huts-hutsa; estilo idatziaik ez du berarengan eraginik»

«Sortzaile diren heinean norik bere fruituak ematen ditu; Manuelek gozokak dira»

espirituak sortua. «Nigan ez dago xpiritu pikka bat besterik ezer» zioen inurri bati.

Bertsolaritzaren historiaren barruan, non kolatuko zenuke Lasarteri, ze bertsolariren ondoan?
Bertsolarik eta poetak ez dira neurtekoak inola ere. Sortzaile diren heinean norik bere fruituak ematen ditu, eta Manuelek gozokak dira, ederra, hunkigarriak. Nik gorenean ikusten dut behin eta berriz gozatzen dut haren bertsoak oraintan. Eta belari kaskara eduki arren, liburutakoak ere kontari irakurtzen ditut.

Uztapide eta Lasarteren arteko harremana ere aztertzen duzu.
Bikoterik aipatuna, klive bihurtzeraino, Basarri eta Uztapidek osatua izango da, ziar soko. Lehen nioen neurritz kontu hori ez dela egokia, baina halere, eta bikote biki hori kendu gabe, Uztapide eta Lasarter osatu zutenak.

«Uztapidek eta Lasarterek bertsolaritzako bikote emankorren arteko osatu dute»

«Bakarrik egoteko ez zuten aukerarik izan, baina bakardade ere sakon bizitakoak da»

besta urtean egoniko lagunak sarri inguratzen zaizkio, eta idazten ere harrezkero egin du lanik handiena: elburu elburu sartzen. Dena den, bakardade ere sakon bizitako pertsona dela esango nuke nik: hainko gizon sentierak eta sortzaile finak nahitaze sentitu behar

darrikatu nahi dut nik. Bi Manuel maitagarri bat etortzea bertsolaritzan izan den gertaeirik ederrenetakoa izan da, eta emankorrenetako nik use, 27 urte ibiltzen plazarik plaza, eta urteko 100 bat saio egitera iritsi, herriak hala eskatutik. Ez da izan, ez hurririk eman ere, hainbeste bertso kantatu duen bikoterik. Eta nolako harremana izan zuten jaitzeko ez dago «lurri» egonikako bertsoetan errepertari besterik.

Plaza gizona izandu den arren, gizon bakartia al da Lasarteri?



» ZENAIB BERTSU

- **Egurjentzia.**
Egurjentzi, argi berri zera gure gloriari, gauri agur egin digu ta zuri argi etortu.
- Bertsoak, abeslari denok gero ameslari, deni gozokak ere pozikan osatuko izan dira.
- **Leitzako omenaldia.**
Nere iduri bot ere orjari dute eriko kalban, ongile denak eskertu noian nabli frunkit aldan.
- Esan neazake: gion nintzan lur baldinokatu zabilen, baldin artzen orri mazelo gour amaren magalean.
- **Uztapide.**
Zorionean egun batian gu biki ginton ofortu, bain ongu gudu deno gelago ezin bakartu, kendoreto bat bertolatuzion bereziki bot artu.
- **Leitzako omenaldia.**
Nere iduri bot ere orjari dute eriko kalban, ongile denak eskertu noian nabli frunkit aldan.
- Esan neazake: gion nintzan lur baldinokatu zabilen, baldin artzen orri mazelo gour amaren magalean.
- **Uztapide.**
Zorionean egun batian gu biki ginton ofortu, bain ongu gudu deno gelago ezin bakartu, kendoreto bat bertolatuzion bereziki bot artu.
- **Leitzako omenaldia.**
Nere iduri bot ere orjari dute eriko kalban, ongile denak eskertu noian nabli frunkit aldan.
- Esan neazake: gion nintzan lur baldinokatu zabilen, baldin artzen orri mazelo gour amaren magalean.

Beste zenbait bertso

- **Nere bizitza estia.**
Gure lur malle onetan bizi bonik penatan somatzen gaitu beretan.
- Ere jainkoa, ez dakin aibat afitzako nik zer detan; ogi bat urte eusten, egunez eta guetean, beti nabli magibetan.
- **Bertso eder sako.** Iñaki Zubizarretak eskulanean, Manuel Lasarteren beste hainbat bertso aipatzen ditu, berarentzat Lasarteri sortu dituen edereenetarikoa izan nahi iratekeenak. Hauxe horietako zenbaiten (zerburuak dira: *Gau eder bat, Nere alaba zana, Lore eder bati, Txantxogorri bati, Amore soaska, Nere biki-kantoiari buruztuenan, Nere soakari, Neskarzar bati...*)
- «Oso zail da bizipahitu bertsoak zer den, du Zubizarretak.

«Nigan ez dago xpiritu pikka bat besterik ezer» esan omen zuten noizbait Manuel Lasarteri, Iñaki Zubizarretak jasotako hitzetan.

Gazte-gazterik hasi zen lanean, 12 urte eskas zituela, eta bertsoetan 17 zituela. Eta halaxe segitu zuen, Iñan eta bertsoetan, 16-40 urte bete arte. Ez zuen, beraz, bakarrik egoteko aukera handirik izan. Lana eta plaza ustean, hutsune handia nabarituko zuen noski, baina hain

Saskia

Gorrotxategi gozotegiko produktuez osaturiko saskia zozketatuko dugu gure harpidedun guztien artean!

HITZAREN harpidedunentzat abantailak

GORROTXATEGI
Plaza Zarru, 7 • 20400 TOLOSA
Tel.: 948 67 07 27 • Fax: 948 67 87 39

Zizurkilen ostalaritzan lan egiteko jendea behar da.

Interesatuak dei dezala 606 815 000 zenbakira.

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Trikitixa.** Egosera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.
- **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardri Txikiaren parean (Santa Klara). Bi logela, sukalde handia, garbiera eta berogailuak. Hormigoitxoak. Ikuspegik Uzturu alde-ra. 665 70 86 35.
- **Zerbitzaria.** Ordiziako Herriko taberna marko zerbitzaria behar da. 943 88 75 98.

LANA

Usabel Kirelogia
Telefonoa: 948 375737
www.bidebid.ez



Azoka arrakastatsuko irudi bat, Langaurre Txirringulardi elkartearen eskutik egindako Bizikleta festa eta Alegiko bizimodua irudietan. E. ARRAYET/N. URBIZU/P. RENOBALDES

«Herritarrekin zuzenean lotutako ekintzak izan dira arrakastatsuenak»

Alegia » II. Azaro Kulturalaren balorazio ona egin du Kultur Batzordeak, herritarren parte-hartzea gakoa izan dela esanez

NEREA URBIZU

Aste honetan Alegiko Kultur Batzordea elkartu egin da Alegiko II. Azaro Kulturalaren balorazioa egiteko asmoz, eta bai, «merezia izan du herritarrek ilusioz eta lan egin bezala antolatutako hilaletak». Abaraska bete zuten herriko hainbat talderekin osatuta eta herritarren gustuko zapore eta kolorea izan duela agerian geratu da. Balorazioa «oso ona izan da», Maider Jauregi kultur teknikariak esan bezala.

«Herritarren parte-hartzea oso ona» izan dela adierazi du, eta, noski, «Azaro Kulturalaren kolaboratu dutenena ere bai». Orokorrean herritarrekin lotutako ekitaldiak izan dira arrakastatsuenak: «Adibidez,

Jose Inazio Igleasiak prestatutako Alegiko garai bateko dokumentuena, Iñaki Mezquitaren burduntziena, Alegiko argazkizaleen taldeak prestatutako Alegiarren bizimodua... Ikusleek galderak egin zituzten eta intereseko gaiak izan ziren denentzat. *Totu*-ren Niloko ur lasterrena ere «ondo» egon zen, «produktzioa xumea zen, baina haiek nahi izan zuten ederki transmititu zuten. Adin desberdineko jendea hurbildu zen; esan behar da, esaterako, Jose Inazio Igleasiaren dokumentuena denbora gehiagoz egon beharko zirela esan zigutela; honelako gomendioak kontuan hartuko ditugu».

Txintxarri Eguna urtero egiten da, eta jendearen erantzuna beti ona izaten da. Loatzo musika eskolakoen kalejira egin zuten ere, jendea kalera atera zen entzuteko.

Argazki erakusketan, bai Jubilatuen tabernakoa, eta baita Kultur Etxean egindako argazki proiektioan jende asko egon da ere: «Kultur Etxean eguneko 30 bat lagun».

Ekitaldiz ekitaldi

Langaurre txirringulardi elkarteak eman zion hasiera II. Azaro Kulturari Bizikleta festarekin eta parte-hartzea handia izan zen. Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak, Intxurre elkartearen bertso afaria antolatu zuen eta «oso ongi» joan zen, bertsozale asko elkartzu eta barre batzuk egin.

Dantzari Txiki Eguna 10 urtez ospatu dute Alegian, eta aurten «goizez egitearekin argi gehiago izan zen eta politagoa atera zen. Plazan sortu zuten giroa oso polita izan zen».

Lehen azoka, arrakastatsua

Azaroaren II. n herriko plazan herritarren postuez osatutako azoka egin zuten: «Lehenengo urtea izan da eta arrakasta izan du». Etxeko produktuak izan ziren ikusteko nahiz saltzeko. Hainbat herritar orduan konturatuko ziren zein jende aberatsa duten herrian, urrutira joan gabe, ez baitzen barririk erosteko gauzak egon, ikus-

kizun modukoak ere izan baitzen: artisautza, gauza bitxiak.

Azokan herritarrak izan ziren protagonista, «jende asko animatu zen honetara ere». «Azokarekin lotutako zerbaitekin hobetzekotan», dio Maider Jauregi, «garaia litzateke: egun hau berriz egin nahi dugu, baina urteko beste egun batean, baratzeiko produktu asko, adibidez, ez baitago udazkenean eta zentzu horretan aberastu daiteke. Beraz, edozein kasutan, aurreratu egingo genuke».

Erantzun onena izan zuen antzerkia Txalo antzerki taldearen *Bota Patsa* izan zen: «Jendeak oso ondo pasa zuen, pozik zegoen».

Parte-hartzaileei eskerrak

Alegiko Kultur Batzordearen aldetik eskerrak ematea besterik ez zaie falta, eta horrela egin dute: «Eskerrak parte-hartzaileei, denon artean lana eginda lortu da Azaro Kultural biribil bat egitea. Borondatez egin dute, eta hori asko eskertu nahi dugu».

AHT hizpide etzi Atxulondon, Nekane Jurado adituaren eskutik

ERREDAKZIOA

Tosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak hitzaldi bat antolatu du. Etxeko ekitaldian Nekane Jurado ekonomialari, psikologo kliniko eta Elkartzeneko kide gasteiztarra izango da Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 19:00etan. *Kapitalismoaren ondorio psikologikoak* izango da gasteiztarrek emango duen hitzaldiaren izenburua.

Nekane Juradok esperientzia zabala du Euskal Herriko herri mugimenduetan, eta mugimendu horiei laguntzen die eta haiekin parte hartzen du ekonomia eta gizarte-azterketak egin. Sakon aztertutako Kontzertu Ekonomikoaren edukia eta bilakaera.

Arrasatera joateko autobusa

Bestalde, gaur zortziko (hilaren 15) Arrasateko AHT proiektuaren aurkako manifestaziorako autobusa antolatu du AHT Gelditu! Elkarlanak 17:00etan izango da manifestazioa eta hori kontuan izanik, autobusa 15:15ean aterako da Villabonako Olaederra kiroldegitik. Ondoren, Anoetako plazan geratuko da eta, azkenik, Tolosako Triangulo plazan egingo du geldialdia 15:30ean.

Autobuserako izena emateko zerrendak jarri dituzte eskualdeko hainbat herritako tabernatan. Izena emateko azken eguna hilaren 12a da, asteazkena.



Eskualdean AHTren aurkako hainbat manifestazio egin dituzte. E.E.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udalak Mendi Astea antolatu du datorren astelehenerik hasita

Asteasu » Orientazio lasterketa, eskalada txapelketa, mendi irteera eta ikus-entzunezkoak izango dira ekitaldiak

ERREDAKZIOA

XIII. Mendi Astea antolatu du Asteasuko Udalak datorren asterako. Hiru ikus-entzunezko egongo dira, orientazio lasterketa, roko-dromoan egingo den eskalada txapelketa eta, lehenengo aldiz, mendi irteera antolatu dute.

Etzi, astezkenean eta ostiralean ikus-entzunezkoak izango dira udaletxeko zinema aretoan, 20:00etan. Etzikoan, Ina Rufok Malin zehar egindako bidaiaren berri emango du. Asteazkenean Iñaki Kaperotxipi Etiopiari buruz ariko da. Ostiralekoan, Juan Vallejo Tibetan, Everesten eta Shishan egindako eskaladak izango ditu hizpide.

Larunbaterako, hilak 15, bigarreneko aldiz orientazio lasterketa egingo dute. Iazko arrakastaren ondoren, herritarrek berriro eskatu zuten lasterketa antolatzeko. Fa-

miliak hartzen dute parte bertan. 09:30etik aurrera izena eman ahal izango da plazan bertan.

Eskalada lehiaketak bere hirugarren aldia beteko du aurtengoan. Proba 18:00etan hasiko da kiroldegiko rokodromoan.

Iganderako, mendi irteera antolatu dute. Zarautz eta Zumaia arteko ibilbidea izango da, edozein adin tarterako egokia. Irteera 08:30ean izango da, herriko plazatik. Itzulera 12:30ean izango da Zumaia. Haurrek euro bat ordaindu beharko dute autobusa eta helduek 3 euro.

Anoetako kiroldegian doan eskainiko dituzte saioak Gabonetan

ERREDAKZIOA

Anoetako kiroldegian Gabonetan dohainikako saioak eskainiko dituzte. Batuka eta judoko saioak haurrentzat, hip-hop eta cycling-ekoak gazteentzat, oriental dance, fitball, aerobox, aerosalsa eta aerodance, defentsa pertsonala eta cycling-ekoak helduentzat eta gimnastikakoak 3. adinekoentzat. Parte hartu nahi dutenek kiroldegian eman beharko dute izena hilaren 12tik 21era bitartean.

Bestalde, hilaren 13an, 18:30ean Marmier doktoreak *Kirola nola egin bizkarra* hondatu gabe hitzaldia emango du.

Ekintza Plana aurkezteko herri bilera Belauntzako Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Belauntzako udalerrriak zein San Lorenzo Udaltalde 21 osatzen duten beste udalerriek jada osatuta dituzte euren udalerriko Ekintza Plana lehen zirraborroak. Ekintza Plan horiek osatzeko, Udalez gain, iturri ezberdinak erabili dituzte: herritarrek elkarriketaz, herri batzarra, zozketa bat antolatzea... Ekintza Plana aurkeztu eta denen artean lehentasunak finkatzeko unea iritsi da. Hori dela eta, Belauntzako Udalak bigarren herri bilera antolatu du hilaren 11rako, 19:30ean, Kultur Etxean.

Arrospide eta Mujika Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan

Aizkora » Leaburuarra gaur ariko da Mendaron Zubiagarekin; ibartarra Olasagastirekin ariko da bihar Tolosan

ERREDAKZIOA

Angel Arrospide leaburuarra eta Jesus Mari Mujika ibartarra Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketan lehiatuko dira asteburu honetan. Arrospide Zubiagarekin batera ariko da gaur Mendaron eta Mujika Olasagasti izango du bikotekide bihar Tolosako saioan.

Arrospide eta Zubiaga Jose Miguel Peñagarikano eta Arria V.aren aurka ariko dira Mendaroko pilotalekuan, gaur 12:30ean. Antolatzaileen esanetan parekotasun handia izango da bi bikoteen artean. Txapelkako saioarekin bat herriko harri-jasotzaileek eta trontzalariek erakustaldia eman-goto dute, Pedro Mintxeta Lari omenaldia eginez.

Lehia estua ere Tolosakoan

Mujikak eta Olasagastik beraiekin indarrak neurtuko dituzte Iñaki



Angel Arrospide. HITZA

Azurmendi eta Jose Ugarte-bururen aurka, bihar, Tolosan. 12:00etan hasiko da saioa, eguraldi ona egiten badu Triangulo plazan eta txarra bada Beotibar pilotalekuan. Tolosan egiten ari diren Txuleta Festaren ekitaldien baitan sartu dute emanaldia.

Antolatzaileen esanetan, norgehiagoka honetan ere ez dago faborito nagusirik. Txapelkatak saioaren ondoren Perurena aita-semeeek erakustaldia egingo dute harri-jasotzen.

Egin beharreko lana

Bai Mendarokoan zein Tolosakoan lan handia egin beharko dute aizkolariek. Guztira sei saio ezberdin egin beharko dituzte. Lehenengo 45 ontzako enborra kolpeka (erdia aizkolarik bakoitzarentzat). Ondoren, 45 ontzako 4 enbor erlojuaren aurka (aizkolarik bakoitzak bana). Gero 60 ontzako enbor bertikala txanda librean. Ondoren, 45 ontzako bi enbor (bat bertikalean eta bestea horizontalean). Gero bi enbor 60 ontzakoak (aizkolarik bakoitzarentzat bana, bata bestearren atzetik). Eta azkenik 6 enbor txanda librean (bi 45 ontzakoak, bi 54koak eta bi 60koak).



Jesus Mari Mujika. A. IMAZ

«Sukaldean aritzea eta mahaian elkartzea gustuko du jendeak»

JOKIN ZABALA » Sukaldaria

Villabona » Zumbeltz elkarteak sukaldaritzako ikastaroa antolatu du eta Jokin Zabala izango da irakasle lanetan ariko dena

IMANOL GARCIA

Jokin Zabala (Villabona, 1966) izango da Zumbeltz elkarteak antolatu duen sukaldaritzako ikastaroaren irakaslea. Amasako Kultur Etxean dagoen Iturri-Goxo jate-txea eramaten du Zabalak. Ikastaroan parte hartu nahi duenak oraindik badu aukera horretarako. Udaletxeko kultura saileko bulegora joan edo 943 69 16 55 zenbakira deitu beharko du. Hilaren 10a da azken eguna eta ikastaroaren prezioa 3 eurokoa da.

Ikastaroa ematen duzun lehenengo aldia al da?

Zumbeltzen bai. Aurretik Irrintzi elkartearen ere eman nuen ikastaro bat. Nafarroan Gobernuarentzat ere ikastaroak ematen aritu naiz. Betidanik gustatu izan zait ikastaroak ematea.

Zergatik gustatzen zaizu?

Gustura aritzen naiz jende tartean. Atsegina izaten da. Nire profesioa izugarri gustatzen zait eta ahal den neurrian zerbait erakutsi ahal badezaket, ba gustura.

Zer emango duzu ikastaroan?

Ikastaroa nahiko motza da. Dagoeneko jende ugari eman du izena eta bi talde osatuko ditugu. Orain Gabonen garaia dator eta horrekin lotutako lau bat plater erakustea da asmoa: karduak, konpota, intxaursaltsa... Baina ni irekita nago proposamenetara. Izena ematerakoan jendeak proposamenak egiten ditu. Astelehenean ikusiko dut zein diren eta orduan erabakiko dugu zer egingo dugun ikastaroan. **Azker urteotan sukaldaritzak indar handia hartu du.**

Sukaldaritzako oso mediatikoa bihurtu da. Mundu oso zabala da. Jaten duenak badaki zer gustatzen zaion. Hemen jendea sukaldean



I. GARCIA

aritzea eta gero mahaian inguruan elkartzea gustatzen zaio. Gero, jendeak ere interesa du gauza berriak probatzeko, halako jate-txetan zerbait jan duelako eta.

Emakumezkoak zein gizonezkoak joaten dira ikastaroetara?

Amasan ikastaro bat antolatu genuenean, 30 parte-hartzaile izan ziren eta denak emakumezkoak ziren. Elkarte batean egiterakoan, bertako kideak ere izena ematen dute eta gizonezkoak ere izango dira.

Nire lanbidea izugarri gustatzen zait eta gustura ere zerbait erakutsi badezaket

Ez dirudi gaur egungo gazteek sukaldaritzako gustuko dutenik.

Gaur egun asko aldatu da. Lehen gehiago ikasten zuten, batez ere alabak amarengandik. Orain, gazteak bakarrik bizitzera joaten direnean, zerbait ikasi behar dutela ikusten dute, baina zaila izaten da. Denbora falta dago askotan eta jaki izoztuak eta plater preparatuak erabiltzen dituzte gazteek.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza Estrella eraikinean.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza Belatan.
Salgai (Tolosa). Garajeak San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, zentroan.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, Magdalena kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Leaburu bidean). Pabiloi industriala, Ibarra.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN
PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Olaizola II.a-Begino Titin III.a-Goñi III.aren arteko pilota desafioa eta 2. mailako Lau t'erdiko Txapelketaren finala Diaz eta Argoteren artean Beotibar pilotalekuan, II. Txuleta Festaren barruan. Ramon Arbillaga ere omenduko dute. 16:30ean hasiko da jaialdia.
- **Tolosa.** Udak Txistulari Bandak Inmakulada kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupeetan 12:30ean.
- **Tolosa.** Ken 7 taldearen kontzertua hilaren 14ean Leidorren. Sarreak salgai daude 12 eurotan Leidorren bertan eta Kutxan (Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net).
- **Leaburu-Txarama.** Abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatuko dute. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udaletxean.
- **Zizurkil.** Bigarren eskuko jostailuen merkata abenduaren 20an izango da Joxe Arregi plazan. Salgai jarri nahi diren jostailuak abenduaren 14ra arte Villabonako gazte lokalean bilduko dituzte.

Zinema

- **Tolosa.** *Irabazle eta galtzaile*, gaxtetxentzako filma, 17:00etan, Leidorren.
- **Tolosa.** *13 Rosas*, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.
- **Villabona.** *Shrek 3*, 18:00etan, Gurean.
- **Villabona.** *Conversaciones con mi jardinero*, 22:30ean, Gurean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Lekunberri.** Mendia, MI. Aralar kalea, 25. 112.
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Arro baserrikoen txerri bat izango da laugarren urtez Donostiako Santo Tomaseko txerria; aurtengoak oraindik ez du izenik. NAIARA GARZIA

Santo Tomas eguneko erregina aurten ere Leitzaoko Kristina Saralegiren Arro baserriko txerria izanen da, aurtengoan, 360 kiloko; oraindik ez diote bere jabeek izenik jarri txerriari.

360 kiloko erregina arroxa

NAIARA GARZIA

Santo Tomas eguneko Donostiako Konstituzio Plazan ikusgai egonen den txerriak 360 kilo pisatzen ditu aurten. 4 urte ditu eta Leitzaoko Arro baserrian bizi da. Baserri honetako Kristina Saralegik azaldu duenez, «artoa, garagarra, garagar-hirina, belarra... eta horrelakoak janez hazi da». Saralegik aziendak beti kanpoan izan ohi ditu.

Beraien esku egoten da, nahi dutenean sartzen dira barrura. Animalia bitxiez beterik dagoen baserri xarmantgarri honetan bada, ordea, Santo Tomasetako erregina gain beste altxorrik, bi txerri viet-

namdar baitutuzte, baita *Pata negra* deitzen diren horietakoak ere, batzuk hagitz txikiak gainera, jaiotze berriak. Oraingoz Santo Tomasetako txerriari izenik ez diote jarri, lehenengo urtekoari Anbroxi jarri zioten, aurrekoari, aldiz, Afrodita. Hauek ere Arron jarraitzen dute Kristina Saralegik azaldu duen bezala. «Anbroxi Santo Tomasetatik bueltan umeak izan zituen eta Afrodita ere oraindik bizirik dago».

Laugarren urtez Arrokoak

Laugarren urtea da Arroko baserriko txerria aukeratzeko dutela Santo Tomas egunerako. Donos-



Kristina Saralegi, N. GARZIA

tiarren egun handia iritsi bitartean lasai dago txerria, tarteka ikuluan, tarteka atarian, beste txerri, txakur, asto, ahate, oilar etabarrekin.

«Egun horretan ere bera hagitz lasai egoten da Donostian, ez baitu deus ere egiten bertan, jan eta egon, besterik ez. Ni bai, ni urdu-riago egoten naiz», aitortzen du Saralegik.

Txerriak lasai bizi dira antza eta bere izenari ere jaramonik ez diote egiten. «Txerria da bere izenez deituta minduta sentitzen ez den bakarra, gizakiak ez bezala», dio umoretsu Esteban Saralegi anaiak.

denda

Ametsetarako hitzak

ipuinen majian izkutatzeko euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,
HITZAREN postuan
(Barrenkale, 73)



LIBURUAREN
AURKEZPENA
abenduaren 6an
16:00etan
Durangoko Azokako
Elkartegian